

2019. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2018ko urriaren 23an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2018/12/14. 240. zk.

ORDENANTZA FISKALA, AUTO-TAXI LIZENTZIEN TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAEREA.

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrita, udal honek Auto-taxien Lizentzien Tasea eskatuko dau.

2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasa honen—egitate ezargarria auto-taxien lizentzien ganeko zerbitzuak emotea eta jarduerak egitea da, martiaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onetsitako erregelamentuan agertzen diranak eta automobil arinen garraioko uriko zerbitzuen ganeko Udal Erregelamentuak garatuak hain zuzen be. Hona hemen zerbitzuok eta jarduerok:

- a) Lizentzien kontsezinoa eta emotea.
- b) Lizentziak eskualdatzeko baimena emotea, halan egitea egokia danean eta indarreko legeriaren arabera.
- c) Lizentziari lotutako ibilgailuak aldatzeko baimena emotea, bai aldaketea borondatezkoa danean, bai legeak aginduta danean.

3. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

Legeetan edo Nazioarteko Itunen aplikazioetan beren beregi ezarritako salbuespenak edo hobariak baino ez dira emongo.

4. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK.

Tasa honen subjektu pasiboak dira lizentzia eskatzen dituzten pertsona fisiko zein juridikoak, hau da, auto-taxien lizentzia hartzen dituztenak.

5. artikulua. TASA KUOTEA.

Tasa kuotea kopuru finko batez finkatuko da, zerbitzuaren edo jardueraren eta honako tarifa honeen arabera:

	2019 (€)
--	-----------------

1- Lizenzia emotea	366,68
2- Bizien artean lizenzia eskualdatzeko baimena	1.404,02
3- Heriotzeagaitik derrigorrezko oinordekoen alde lizenzia eskualdatzeko baimena	644,20
4- Ibilgailua aldatzeko baimena	18,58

6. artikulua. SORTZAPENA.

Tasea sortuko da eta tasea ordaindu behar izango da udal honek lizenzia emon eta luzatuko dauen egunean edo lizenzia eskualdatzeko edo ibilgailua aldatzeko baimena emongo dauenean.

7. artikulua. ORDAINTZEA.

- 1.- Tasea honetako jarduerak eta zerbitzuak alde batek eskatuta egin beharko dira.
- 2.- Kuota guztiak kitatu egingo dira zuzeneko ordainketea egiteko lizenzia edo baimen egokiak emonda gero, eta zergadunek diru-bilketaren ganeko erregelamentuan ezarritako epean ordainduko dituzte kuotak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsi dauen Kudeaketa, Diru-bilketea eta Ikuskapenaren gianeko Ordenantza Fiskal Orokorra eta aplikatzekoa dan legeria bete beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOn 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarrrik barik itxi arte.